

Hernaniko Udal Hezkuntza Batzordea

"Hernani" Musika Eskola Publikoa

Oscar Duarte Canuto

Las Hurdes: Danbolin Joaldiak eta Kantuak


apirilak 16 19:30etan

16 abril 19:30 h.

Tokia / Lugar: Biteri

2007

Hernani



LAS HURDES: DANBOLIN JOALDIK ETA KANTUAK OSCAR DUARTE CANUTO

Nuñomoralen jaioa, bertan hasi zuen bere ibilbidea folkloreak munduan, bertako koru eta dantza taldeak zuzentzen baitzituzten bere gurasoek: Gregoria Canuto eta Daniel Duarte alegia. 10 urte zituela, aitona zuen Gregorio "Tío Goyo"-rekin hasi zen danbolina jotzen.

Dagoeneko hilak badira ere, inguruko danbolintero zahar asko ezagutu eta beraiekin jotzeko aukera izan zuen, besteak beste "Tío Manolito" Aceitunillakoa, "El guinda de la Alberca", "Tío Ciriaco" Montehermosokoa, Aceitunako Martín, "Tío Jesús el Choto" La Fragosakoa, "Tío Venancio" Cerezalekoa, eta beste zenbait.

Danbolintero handiei egindako omenaldi eta bestelako emanaldi ugaritan parte hartu du, lehiaketa ezberdinetan sari asko ere lortu dituelarik: I. saria Plasenciako astearte nagusian, I. saria Rubiacon, I. saria Las Hurdesetako festa nagusiko tamborileroen lehiaketan, I. saria Caminomoriscoko tamborileroen lehiaketan, beste hainbeste Casar de Palomero eta Pinofranqueadokoetan, I. saria Plasenciako tamborileroen lehiaketa nazionalan, eta beste hainbat. Ciudad Rodrigo eta Oñoron (Salamanca) dantza eta danbolin irakasle ere izana da.

Kontzertu honetan Daniel Duarte Martín eta Victoria Martín Martín izango ditu lagun.

GAITA ETA DANBOLINA LAS HURDESETAN

Las Hurdes inguruan danbolina (tamboril) izan da soinu-tresna nagusia zeremonia guztietan edo gehienetan, eta horregatik joaldi ezberdin asko dago ekitaldi ezberdinetarako. Soinu-tresna hauek, txistua eta danbolinaren senide, ez dituzte oraindik fabriketan egiten, horri esker ohitura zaharrea transmititu direlarik zonalde bakoitzeko, eta areago, danbolintero bakoitzaren jotzeko era bereziak.

Emanaldi hau inguru hartako joaldi ezberdinek osatuko dute, honelako batzuk entzuteko aukera izango delarik: ezteietako joaldiak, elizako joaldiak, jaien hasierakoak, pasakalleak, dantzatutako eta kantatutako jotak, erromantzeak, ezteietako alboradak, kintoenak, egunsentikoak, picasos (bertako dantza oso tipikoak), vascorridos, revueltos,... eta azkenik "jaba", Las Hurdesetako dantza berezia, gaur egun oso jende gutxik dantzatzen dakiena.